EBAZPENA, 2020ko maiatzaren 27koa, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariarena, zeinaren bidez luzatu egiten baitira dirulaguntzak gauzatzeko eta justifikatzeko epeak, deialdi honi dagokionez: Deialdia, unibertsitatez kanpoko heziketa –heziketa-zikloak izan ezik– ematen duten itunpeko ikastetxe pribatuei eta Hezkuntza Sailaren mendekoak ez diren ikastetxe publikoei dirulaguntzak emateko, 2019-2020 ikasturtean Hezkuntzaren Bikaintasuneranzko Prestakuntza Proiektuak egin ditzaten.

2019ko maiatzaren 6an, Hezkuntzako sailburuaren 2019ko martxoaren 26ko Agindua argitaratu zen. Haren bidez, dei egiten zitzaien unibertsitatez kanpoko heziketa –heziketa-zikloak izan ezik– ematen duten itunpeko ikastetxe pribatuei eta Hezkuntza Sailaren mendekoak ez diren ikastetxe publikoei, 2019-2020 ikasturtean Hezkuntzaren Bikaintasuneranzko Prestakuntza Proiektuak egin zitzaten (L1. Hezkuntza-komunitatearen prestakuntza). Agindu horren xedea da dirulaguntzak ematea unibertsitatez kanpoko heziketa –heziketa-zikloak izan ezik– ematen duten itunpeko ikastetxe pribatuei eta Hezkuntza Sailaren mendekoak ez diren ikastetxe publikoei, 2019-2020 ikasturtean hezkuntza bikaintasuneranzko prestakuntza-modalitate hauetakoren bat egin dezaten:

– Berrikuntza-proiektu integralak.

– Curriculuma aberasteko proiektuak.

– Hezkuntza berriztatzeko prestakuntza-proiektuak.

Halaber, agindu horren 18. artikuluko 2. apartatuan xedatzen denez, ikastetxe onuradunek, 2020ko ekainaren 15a baino lehen, proiektuaren garapenari eta ebaluazioari buruzko txosten bat eta proiektuak eragindako gastuen justifikazio-kontu sinplifikatua aurkeztu beharko dituzte https://www.euskadi.eus/nirekarpeta/ webgunean.

Bestalde, uztailaren 16an, ikastetxe onuradunak eman ziren ezagutzera, Ebazpen honen bidez: Ebazpena, 2019ko uztailaren 9koa, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariarena, zeinaren bidez ebazten baita unibertsitatez kanpoko heziketa –heziketa-zikloak izan ezik– ematen duten itunpeko ikastetxe pribatuei eta Hezkuntza Sailaren mendekoak ez diren ikastetxe publikoei eginiko deialdia, Hezkuntzaren Bikaintasuneranzko Prestakuntza Proiektuak egin ditzaten 2019-2020 ikasturtean («Curriculuma aberasteko proiektuak» modalitatea).

Covid-19ak eragindako pandemia-egoerak eragotzi egin du ikastetxeetan jarduera normaltasunez garatzea.

COVID-19ari aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak onartzen dituen martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuak 54. artikuluko 1. apartatuan ezartzen duenez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.1 artikuluan aurreikusitako dirulaguntzak emateko prozeduren eta laguntza publikoak deitu eta emateko agindu eta ebazpenen kasuan, 463/2020 Errege Dekretua indarrean jarri zenean eman baziren, aldatu ahal izango dira, bai diruz lagundutako jarduera gauzatzeko epeak luzatzeko, bai, hala badagokio, jarduera hori justifikatzeko eta egiaztatzeko epeak luzatzeko, oinarri arautzaileetan adierazi ez bada ere.

Hori guztia dela eta, hainbat jarduera aurreikusita zituzten eta COVID-19ak eragindako osasun-alertarekin lotutako ondorioengatik jarduera horiek diseinatutako epean egin ezin izan dituzten ikastetxeentzat, ebazpen honen bidez, luzatu egingo dira 2019ko uztailaren 9ko Ebazpenaren bidez

aukeratutako proiektuak egiteko eta emandako dirulaguntzak justifikatzeko epeak. Hori dela eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Azaroaren 6ra arte luzatzea Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariaren 2019ko uztailaren 9ko Ebazpenak diruz lagundutako jarduera egiteko epea (Ebazpena, 2019ko uztailaren 9koa, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariarena, zeinaren bidez ebazten baita unibertsitatez kanpoko heziketa –heziketa-zikloak izan ezik– ematen duten itunpeko ikastetxe pribatuei eta Hezkuntza Sailaren mendekoak ez diren ikastetxe publikoei eginiko deialdia, 2019-2020 ikasturtean Hezkuntzaren Bikaintasuneranzko Prestakuntza Proiektuak egin ditzaten).

Bigarrena.– Azaroaren 6ra arte luzatzea proiektuaren garapenari eta ebaluazioari buruzko txostena eta proiektuak eragindako gastuen justifikazio-kontu sinplifikatua aurkezteko epea.

Hirugarrena.– Jardueraren bat aurreikusita baina garatu gabe duten ikastetxeek, ekainaren 15a baino lehen, dokumentu bat aurkeztu beharko dute, jarduera hori zertan datzan eta amaitu ahal izateko zer plangintza izango duen azaltzen duena.

Laugarrena.– Epeak luzatu badira ere, proiektua amaitu duten erakunde onuradunek ebazpenean ezarritako epeen barruan aurkeztu beharko dute dokumentazioa, deialdian gaitutako mekanismoen bitartez.

ERREKURTSOAK

Ebazpen honen kontra, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko maiatzaren 27a

Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria.
LUCIA TORREALDAY BERRUECO